# Transformar la educación para trans-formar el mundo.



**UN NUEVO CONTEXTO DE APRENDIZAJE**

Innovar es nuestra esencia

La Salle
KRISTAU ESKOLA



# VIVIMOS EN UN NUEVO CONTEXTO

El mundo está cambiando. Constantemente. Hemos pasado de hablar en persona a comunicarnos con emojis. Cada año surgen nuevos tipos de trabajo, nuevas tecnologías, nuevas formas de relacionarnos, de aprender...
**El mundo está inmerso en una revolución.**

Y la educación necesita adaptarse. Explorar y construir su futuro. Por eso, hemos creado **un Nuevo Contexto de Aprendizaje** –NCA–. **Una innovadora forma de pedagogía** que pretende formar a los niños y niñas desarrollando sus talentos y haciéndoles competentes para construir su propio futuro.






## HACEN FALTA NUEVAS COMPETENCIAS

**Nuestras hijas e hijos** tienen un potencial increíble. **Podrán ser lo que quieran ser.** Pero hay que guiarlos y prepararlos para ese futuro que requiere de nuevas habilidades y competencias no solo a nivel laboral, sino como persona.

Para ello, el NCA trata de acompañarles en ese camino de aprendizaje y mejora con nuevas metodologías que aúnen el **aprendizaje cooperativo, la creatividad, la responsabilidad y la visión solidaria.** El futuro necesita niños y niñas completos, curiosos, capaces de convivir. Con autonomía personal, emprendedores. Con espíritu crítico e iniciativa.

Porque **cuanto más formada esté la persona**, cuanto más se despierte su interés, cuanto más capaz sea de leer la realidad, de dejarse impresionar y responder, de desarrollar su potencial, **mayor será su capacidad de transformar el mundo.**

**Y es esta filosofía la que nos impulsa a desarrollar este nuevo sistema de educación integral.**

## DISEÑAMOS NUEVAS EXPERIENCIAS DE APRENDIZAJE

**La innovación en la formación pertenece a nuestra esencia.** De hecho, contamos ya con varios **programas de innovación propios** en marcha:

| | |
|---|---|
| **ULISES** (Estimulación Neuronal Temprana) | **CREA** (Desarrollo de la Creatividad) |
| **IRATI** (Herramientas para la Gestión del Conocimiento) | **LECTURA EFICAZ** |
| **SEIN** (Proyectos de Resolución Creativa de Problemas) | **HARA** (Educación de la Interioridad). |
| **ESTRUCTURA COOPERATIVA DEL AULA** | |

Y ahora, el **Nuevo Contexto de Aprendizaje. Una propuesta educativa pionera y nueva, nacida en La Salle** como evolución de lo puesto en marcha en los últimos años.

Se trata de un nuevo sistema en constante investigación que crece a diario. Trabajando las inteligencias múltiples y el desarrollo de la autonomía. Hablamos de **un aprendizaje a través de la investigación, la experimentación y la cooperación** con proyectos que desarrollan la responsabilidad individual.

### Participación de las familias como parte esencial en el desarrollo y ejecución del Nuevo Contexto de Aprendizaje.

**Somos una comunidad educativa** en la que **padres y madres, colegio, profesorado y alumnado** tienen mucho que aportar. Y siempre sabiendo que el alumnado es el centro.

### Más de 6000 educadores en nuestros 105 centros La Salle repartidos por la península están siendo formados en este nuevo sistema.

**El profesorado tiene un nuevo papel**. Guía, observa, dialoga, acompaña y reconduce. Además, comparte con familias y la comunidad escolar la evolución y el crecimiento del alumnado.

## LEARNING BY DOING DOING IS LEARNING

¿Cómo se aprende a aprender? Con **proyectos interdisciplinares que lleven a la experimentación** y a la interiorización. Nos gusta hacer para llegar a teorizar. Con dinámica de error y acierto. Porque nadie aprende a patinar leyendo un libro sino haciéndolo y cayéndose.

Se trata de aprender a **buscar fórmulas creativas en la resolución de los retos y problemas.** ¿Cómo? **Mediante la iniciativa personal,** guiado por la curiosidad y las necesidades reales, y apoyado por el entrenamiento de procedimientos relacionados con las lenguas y la matemática.

### Aprendizaje colaborativo basado en proyectos. Con la creatividad y la experiencia como vehículos.

**El profesorado ejerce de mentor. Guía al estudiante** cuando tiene dudas o se atasca para conseguir **desarrollar sus talentos.**

Explorar e innovar tienen en La Salle una razón de ser: **nuestro compromiso con el alumnado.** Cualquier iniciativa que tomemos tendrá siempre un propósito: formarles como ciudadanos y ciudadanas responsables, creativos, empáticos, con una gran vida interior, justos, y sobre todo, capaces de vivir en sociedad.

# Hezkuntza eraldatu mundua eraldatzeko.



**IKASKUNTZARAKO TESTUINGURU BERRI BAT**

Berriztatzaile izatea geure izaerari dagokio



# TESTU-INGURU BERRI BATEAN BIZI GARA

Mundua aldatzen ari da. Etengabe. Aurrez aurre hitz egitetik emojien bidez komunikatzera pasatu gara. Urtero sortzen ari dira lan mota berriak, teknologia berriak, harremanak izateko eta ikasteko era berriak...
**Mundua iraultza batean murgilduta dago.**

Eta hezkuntza egokitu behar da. Esploratu eta bere etorkizuna eraiki behar du. Horregatik **Ikaskuntzarako Testuinguru Berri** bat sortu dugu -ITB-. **Pedagogia berritzaile** bat, ikasleen heziketa beren talentuen garapenaren bidez bilatzen duena; beraien etorkizuna eraikitzeko gai egiten dituena.






## GAITASUN BERRIAK BEHAR DIRA

**Gure seme-alabek** ahalmen sinesgaitza daukate. **Nahi dutena izan, ahal izango dute.** Baina trebetasun eta gaitasun berriak eskatuko dizkien etorkizun horretarako, gida eta prestakuntza behar dituzte. Ez bakarrik lan-arloari dagokionean, baita pertsona mailan ere.

Horretarako, ITB honek ikastera eta hobetzera daraman bidean lagundu nahi ditu. **Ikaskuntza kooperatiboa, sormena, erantzukizuna eta ikuskera solidarioa** biltzen dituen metodologia berriekin egiten du. Etorkizunak neska-mutil oso-osoak behar ditu, bilatzaileak, elkarrekin bizitzeko gai direnak. Autonomia pertsonala dutenak, eta ekintzaileak direnak. Espiritu kritikodunak eta saiatuak.

**Zenbat eta prestatuago egon**, bere jakin-mina zenbat eta piztuago eduki, zenbat eta errealitatea irakurtzeko, zirrara hartzeko eta ahalmena garatzeko gauza gehiago izan, **are handiago izango da pertsona batek mundua eraldatzeko daukan gaitasuna**.

**Eta hau da heziketa integral sistema berri bat garatzera eramaten gaituen filosofia.**

## IKASKUNTZA-ESPERIENTZIA BERRIAK DISEINATZEN DITUGU

**Formazioan berriztatzaile izatea gure izaerari dagokio.** Izan ere, abian ditugu jadanik **geureak diren berrikuntza-programa** batzuk:

| | |
|---|---|
| **ULISES** (Neuro estimulazio Goiztiarra) | **CREA** (Sormenaren Garapena) |
| **IRATI** (Ezagutzaren Kudeaketarako Tresna) | **IRAKURKETA ERAGINKORRA** |
| **SEIN** (Arazo Irekien Ebazpen sortzailea lortzen duten Proiektuak) | **HARA** (Barnetasunaren Heziketa). |
| **IKASGELAREN EGITURA KOOPERATIBOA** | |

Eta orain, **Ikaskuntzarako Testuinguru Berria. Proposamen hezitzaile aitzindari eta berria, La Sallen jaioa**, azken urteotan erabili den guztiaren ondorio dena.

Etengabe aztertzen den eta hazten ari den sistema berria da. Adimen anitzak eta autonomiaren garapena lantzen ditu. **Horrelako ikaskuntza da: ikerketa, esperimentazioa eta kooperazioa erabiltzen ditu** norberaren erantzukizuna garatzen duten proiektuak burutuz.

**Ikaskuntzarako Testuinguru Berriaren garapenean eta gauzatzean, familien parte-hartzea funtsezkoa da.**

**Hezkuntza Elkarte gara**. Honetan, gurasoek, **ikastetxeak, ikasleek, irakasleek** emateko asko daukate. Beti ikaslea erdigunea dela jakitun izanik.

**Penintsulan hedatuta dauden 105 La Salle zentroetako 6000 hezitzaile baino gehiago ari dira sistema berri honetan formazioa jasotzen.**

**Irakasleak eginkizun berria dauka**. Gidatu egiten du, behaketa egiten du, lagundu eta bideratzen du. Horrez gain, familiekin eta hezkuntza elkartearekin ikaslearen garapena eta haztea partekatzen du.

## LEARNING BY DOING DOING IS LEARNING

Nola ikasi ikasten? **Esperimentatzera eta barneratzera eramaten gaituzten diziplinarteko proiektuen bidez**. Egitea gustukoa dugu, teoriak sortzera iristeko. Hutsegiteak egitearen eta asmatzearen dinamikaren baitan. Inork ez duelako irristatzen ikasten liburu bat irakurriz, arituz eta eroriz baizik.

**Erronkei eta arazoei irtenbidea ematean, sormenezko formulak** bilatzen ikastea da. Nola? **Norberaren ekimenaren bidez**, jakin-minak eta benetako beharrek gidatuta, hizkuntza eta matematika arloekin zerikusia duten prozeduren praktikan oinarrituta.

**Proiektuetan oinarritutako elkarlaneko ikaskuntza. Sormena eta esperientzia eramaileak izanik.**

**Irakasleak mentoreari dagokiona egiten du. Ikaslea gidatu egiten du,** honek zalantzak dituenean, edo **bere talentua garatzeko** zailtasunak sortzen zaizkionean.

La Sallen, esploratzeak eta berriztatzeak zentzu betea dute: **ikasleekin dugun konpromisoa**. Abian jarriko dugun edozein ekimenak helburu hau izango du beti: herritar arduratsu, sortzaile eta enpatikoak, barne bizitza sakona dutenak, zuzenak, eta batez ere gizartean bizitzeko gai direnak izan daitezela.